


ONDAREA ETA MEMORIA





HASIERA

“Zure Donejakue bidea, denon ondarea” heziketa-programaren oinarri diren eta hemen aurkezten dizkizuegun **ONDAREARI BURUZKO FITXAK** baliagarriak dira ikasleekin Santiago bideko kultur ondarearekin lotutako hainbat alderdi lantzeko.

Fitxen ordena Bideko etapen ordenaren antzekoa da. Fitxekin egindako lanetik ateratako ondorioak irekiak izango dira eta beste eduki tematiko batzuetan ateratako ondorioekin erlazionatu ahal izango dira.

Fitxak ez dira “erabilera-eskuliburu” bat. Ikasleen ezaugarrien eta interesen arabera, irakasleek gehien komeni zaizkien fitxak jarraibide gisa erabili ahal izango dituzte.

Fitxak honela egituratzen dira:

→ Hasiera batean, eta ideia-jasa gisa, irakasleak ikasleen hezkuntza-beharretara egokitu ditzakeen item batzuk proposatzen dizkizuegu. Helburua ez da ikasleek kontu bakoitzari erantzun bakarra ematea, baizik eta denon artean erantzun globalak bilatzea eta erantzun horiek irakasleak antolatutako talde malguetan elkartuta eztabaidatzea.

→ Planteatutako kontuei emandako erantzunak elkarri azaldu ostean, ikasitakoa osatzeko, **GURE PROPOSAMENA** atalean, irakasleak bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo egin daitezkeen hainbat jarduera aurkituko ditu.

Bai itemen bai jardueren planteamendua diziplinartekotasunean eta ikaskuntza kolaboratiboan oinarritzen da. Hortaz, ikasgelaren programazioetan sekuentziatu ahal izango direnez, fitxak curriculumeko ikasgai desberdinetan Donejakue bidea azaltzen duten eduki teorikoak ukitzen dituzten unitate didaktikoei itxiera emateko erabil daitezke.


Hemen aurkezten ditugun materialarekin egindako lanaren azken xedea Donejakue bideari buruzko sorkuntza artistikoko lanak sortzea izango da.

Bide ona opa dizuegu

Kultur ondarea zuzenean memoriarekin lotuta dago, bai urruneko bai gertuko iraganarekin harremanetan jartzen gaituelako. Ondarearen historia geure historia da, eta ondareari esker dakigu nondik gatozen eta zergatik garen garen bezalakoak.

Hortaz, estua da memoriaren eta historiaren arteko lotura. Haatik, ez dira gauza bera: historia irizpide zientifikoei jarraiki eraikitako memoria kolektiboa da (herri edo nazio baten gertaera politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta abarren multzoa); eta memoria, berriz, subjektiboagoa da, isiluneak eta muga zehaztugabeak ditu.

Fitxa honetan, oroitzapenak biltzeko eta belaunaldiarteko esperientziak sustatzeko proposamenak aurkeztuko ditugu. Hortik abiatuta, Donejakue bidearekin lotutako zuen kultur ondarearen memoria berreskuratu eta eraikiko duzue. Ez ahaztu horixe dela lan artistikoaren oinarria.



GURE HISTORIAREN testigantzak

Funtsezkoa da Donejakue bidea ikuspegi historiko batetik aztertzea. Bidea bere osotasunean zer den ulertzeko. Bidea osatzen duten pertsonaiek, datek, gertaerek eta ondare-elementuek gure arbasoen iraganera hurbiltzen gaituzte. Aitzitik, betebeharrak dakartzan opari zoragarri bat da: gure atzetik datozenentzat zaindu eta, era berean, baliorik galdu gabe bizirik iraun dezan transmititu behar dugu.

Izan ere, Donejakue bidea ez da ezerezetik sortu. Bidea ezagutu berri duten ikasleek ulertu behar dute, IX. mendetik, pertsona askoren bizitzaren zati garrantzitsu bat izan dela. Orain, ikasleei dagokie Bidea beren egitea.

Donejakue bidea mendeetan zehar eraiki da eta, hura ulertzeko, atzean duen historia ezagutu behar dugu.

Zein da gazteek gogokoen duten musikaria, idazlea, zinemagilea, aktorea edo kirolaria? Eremu batean gailentzen den erreferentziako pertsonaren bat al dute?

Segur aski, galdera gutxi eginda, pertsona horren gaineko informazioa emango ligukete. Badute hura miresteko arrazoi bat eta haren ibilbidea ezagutzen dute, interesatzen zaielako.

Sarri historia oso urrutiko gertaerekin lotzen dugu eta uste dugu ez duela batere interesik. Baina gure egungo idoloaren bizitza historia da ere, eta hura ezagutzen ez ezik, haren gaineko irizpidea osatzen lagunduko digu, iritzi propioa izan ahal izateko. Historiak bizitzan irizpide propioa duten pertsonak sortzeko balio du. Besteak beste, horregatik da hain garrantzitsua.

Donejakue bidea eta haren kultur ondarea ezagutzen ari garenez, kokatu dezagun testuinguruan Bidearen sorrera. Gogoan izan iraganik gabe ez dugula etorkizunik izango; hain zuzen ere, horregatik da funtsezkoa ondarearen zeregina.

Aurrekoetan bezala, komeni da ikasleek, zuen laguntzarekin, informazioa bilatzea.

Zergatik sortu zen Bidea? Zergatik done Jakue? Zergatik ibilbide hori?

Erantzun asko beste fitxetan aurkituko dituzue. Beraz, aukera bikaina izan daiteke hau ezagutzen dugun informazioa garrantzi bera duen beste batekin osatzeko. Adibidez, peleginazioak hasi ziren garaia testuinguruan kokatzen has gaitezke:

Erdi Aroa.

Zergatik joaten ziren erromes?

Donejakue bidearen egungo historia eta konfigurazioa hobeto ezagutzeko aprobeitatu ditzakezen edukien artean, hiru hauek proposatzen dizkizuegu:

- 1. Dokumentu-iturriak**
- 2. Pertsonaia aipagarriak**
- 3. Denbora-kokapena**

Informazioa taldeka bilatu eta, ondoren, ikaskideen aurrean aurkez dezakezue.

➔ **1. Informazio-iturri nagusia Kode Calixtinoa da.** Santiagorako peleginazioaren gaineko dokumentu garrantzitsua eta Donejakue bideko lehen gida ospetsua da. XII. mendean idatzi zuten. Bost liburu eta bi eranskinetan banatutako 225 pergamino dira dena.

- Lehen liburuak Apostoluaren omeneko testu liturgikoak biltzen ditu. Ezagunena *Veneranda dies* (XVII. atala, I. liburua) sermoia da, Erdi Aroan Santiagorako peleginazioak zuen esanahiaren gaineko datu garrantzitsuak ematen baititu.
- Bigarren liburuak done Jakue Apostoluaren hogeita bi mirari ospetsuenak, peleginazio-bidean gertatutakoak, biltzen ditu.
- Hirugarrenak done Jakue Apostoluaren gorpuaren bidaia kontatzen du.
- Laugarrenak Carlomagno erregeak Espainian bizitako hainbat pasadizo aipatzen ditu. Erdi Aroko gestakarekin erlazionatutako literatura-testu bat da. Bertan, enperadore frankoak eta Roldan bezalako heroiek musulmanen aurka egindako borroka, done Jakue Apostoluaren hilobiaren aurkikuntza, Apostoluaren hiriaren eraikuntza eta peleginazio-bidearen askapena aipatzen dira.
- Bosgarrenari Erromesaren liburua esaten zaio. Santiago bidea egiteko gida bat da. Datu zehatzak eskaintzen ditu Bidean aurki daitezkeen lekuei, jendeari, geografiari, otorduei eta arriskuei buruz. Orobat, XII. mendeko Compostela eta hango katedral erromanikoa deskribatzen ditu.
Egilea Aymeric Picaud monje frantsesa dela uste da

Liburuak garai desberdinetan eta banaka idatzi ziren. Amaieran, musika-notazioa duten folio batzuk gehitzen dira: Mendebaldeko polifonia zaharrenak dira horiek.

Administrazio publikoei esker, Kode Calixtinoa UNESCOren "Munduaren memorian" sartzea lortu da. Ondarea babesteko helburua duen zerrenda horretan, garrantzitsutzat jotzen den munduko dokumentu-ondarea sartzen da.

**Zuen herri edo hiriko zein dokumentu-material sartuko zenukete zerrenda horretan?
Eta zergatik?**

Kode Calixtinoa 2012. urtean lapurtu zuten eta urtebete ondoren berreskuratu zen.

Gogoan dituzue kultur ondareak dituen arriskuak?

Gure I. proposamena: Musika bidelagun dugu
bizitza osoan zehar...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

2. Bestetik, interesgarria izan daiteke Bidearen konfigurazioan parte hartu zuten **pertsonaia historiko nagusiak**, bai erromesak bai bestelakoak, ezagutzea. Horrela, ikasleek pertsonaiak gertuko sentitu eta, testuinguru historiko hartan, pertsonaion motibazioak hobeto ulertuko dituzte.

Hona hemen gure proposamena:

Done Jakue Apostolua / Jimena Garcés / Diego Gelmírez / Santa Brigida Suediakoa

Carlomagno / Alfontso II.a / Leongo Santxa / Santo Toribio

Santxo III.a / Santo Domingo de la Calzada / Aragoiko Violante

Pertsonaia nabarmenen artean hainbat emakume sartu ditugu.

Bidaiaaren gaineko oinarritzko datuak azaltzeaz gain, ikasleei fenomenoaren ikuspegi zabalagoa eskaintzera animatzen zaituztegu. Saiatu zaitezte hain ezagunak ez diren baina Donejakue bidearen jaiotzan oso garrantzitsuak izan ziren beste alderdi batzuk aztertzen, esaterako, emakumeen eginkizuna.

Inondik ere, Bidearen memoria ezagutzeko ikuspegi berri bat da eta, berdintasuna nagusi den garaiotan, ikasleak motibatzeke balio dezake.

**Erdi Aroan emakumearen rola menpekoa zen beti.
Ohartu al dira ikasleak emakumeen jarduera gehienak senarrarekin lotuta zeudela?
Eztabaidak ez du aurkezpenik behar.**

Pertsonaia hauetariko batzuk hobeto ezagutzeko, haiek irudikatzen dituzten elementu ikonografikoak erabil ditzakegu. Margolanak, eskulturak, grabatuak, ilustrazioak, eta abar erabilgarriak izan daitezke. Informazio-iturri horietako asko dibulgazio-helburuarekin sortzen ziren, pertsonaia eta hark egindakoaren garrantzia ezagutarazteko.

Paralelismorik aurki al dezakegu gaur egungo publizitatearekin?


Ondarea bizirik dago eta istorioak kontatzen dizkigu. Entzutea besterik ez dugu.

Nola hitz egiten digute ondare-objektuek? Obra bat aztertzeke, zuen taldearekin batera, jarraitu urrats hauei:

- Piezaren aurkezpena: ikusten dutena iruzkindu aurretik, eskatu ikasleei pieza arretaz begiratzeko.
- Erreparatu xehetasunei: azpimarratu inor ohartu gabe egon daitezkeen ezaugarri garrantzitsuak (kanpoko elementuak ditu, janzkera, atzealdeko dekoratu/agertokiak, itxura edo aurpegiera, edota bigarren mailako pertsonaiak), ikasleek aztertu ditzaten eta iritzi komuna adostu dezaten. Galdera hauei erantzuteko ez da asko jakin behar historiari edo arteari buruz, nahikoa da norberak bere ondorioak ateratzea.
- Kontuan hartu beharreko datuak: eman obraren datu historiko eta artistiko esanguratsuenak, ikasleek alderdi guztiak ezagut ditzaten. Interesgarriak izan daitezkeen elementuak komentatuko ditugu.
- Hausnarketarako gaiak: hainbat puntu proposatzen dira; horietako batzuk ikusgai dagoen piezaren ezaugarri garrantzitsuenak dira eta piezaren benetako esanahia erakusten dute.


3. Donejakue bidea ez da beti izan gaur egun ezagutzen dugun peleginazio-bidea. Mendeetan zehar, ospe handiagoko eta txikiagoko uneak bizi izan ditu. Horregatik, **denbora-lerro** bat diseinatzea proposatzen dugu, Bidearen historiako gertaera nabarmenak eta funtsezko datak ordenatzeko. Taldeak errazago ulertuko du Bidearen bilakaera denboran kokatuta. Fitxa honekin lan egiten hastean denbora-lerroa hutsik utz daiteke, eta, aurrera egin ahala, lerroa betetzen joan gaitzke. Bestela, amaieran, ikasitako edukiak berrikusteko, ikasleei lerroa betetzeko eska dakieke.

- Hasiera: Pelaio eremita (Pelayo edo Payo izenez ere ezaguna) eta Carlomagno.
- Gailurra Erdi Aroan. Islamaren aurkako borrokan, Apostolua borrokaren ikur gisa erabili zen, Apostoluaren hilobia "lurraren mugaldean" zegoen, hara iristeko zailtasunez betetako bidea sakrifizio bihurtu zen eta erromesentzako babes-neurriak ezarri eta zerbitzuak (ospitaleak, abadiak, monasterioak) sortu ziren. Horren guztiaren ondorioz, kristau peleginazio-bide nagusi bihurtu zen Bidea.
- Aro Modernoa eta peleginazioen gainbehera. Europako gerren, izurrien eta beste kultu kristau batzuen sorreraren ondorioz, Santiagorako peleginazioak ia amaitu egin ziren.
- XIX. eta XX. mendeak. Bidearen berpizkundea. Bidea XIX. mendearen amaieran hasi zen berriro ere suspertzen, Miguel Payá y Rico Santiagoko artzapezpikuak Apostoluaren gorpuzkia aurkitu eta Leon XIII. aita santuak benetakoak zirela ziurtatu zuenean.
- XX. mendearen amaiera eta gaur egun: fenomeno kultural eta turistikoa da. Gizadiaren ondare izendatu zuten 1993an (Frantses bidea) eta 2015ean (Penintsulako iparraldeko bideak).



Zuen herri edo hiria eta haren historia non daude kokatuta denbora-lerroan?

GURE MEMORIAREN testigantzak



Donejakue bidearen historia sakon ezagutu ondoren, taldeak ulertu behar du azaldu duguna erraz aurki daitekeela Interneten, liburuetan eta gidetan. Baina, badaude ezagutzen ez diren eta historia nagusiaren itzalpean gelditzen diren beste historia batzuk. Horri intrahistoria deritzogu eta, intrahistorian, memoriak oinarritzko eginkizuna du.

Ikasleen aburuz, zein izan da joan den asteko gertaera garrantzitsuenak ikastetxean edo auzoan?

**Nortzuk izan ziren protagonistak?
Gertaeraren ondorioek oraindik diraute?**

Joan den astean gauza asko gertatuko ziren, horietako batzuk oso garrantzitsuak, baina, segur aski, gertaera nagusi batek eklipsatuko zituen. Norberak kontatu ditzakeen gertaera eta istorio pertsonal horiek ere osatzen dute joan den asteko historia, baina bigarren mailan utzi ohi dira. Garrantzitsuak al dira? Bai, seguru. Beharbada beste gertaera batzuk gertaera nagusi horrekin lotuta egon edo haren ondorio izan daitezke.

Hori bera gertatzen da gure historiarekin. Gertaera aipagarrienak zabaltzen dira azkenean, baina eguneroko bizitzan beste gauza asko gertatzen dira.

Estrapolatu dezagun adibidea Donejakue bidera. Pertsonaia handiak, data garrantzitsuak edo gertaera historiko aipagarrienak gelditu dira, baina Bidea milaka istorio desberdinekin osatu dute.

Kode Calixtinoko kontakizuna idatzi zuen monjea azken mendeetan zehar Bidea egin duten milaka erroimesetako bat izan zen. Gaur egun, teknologiari esker, errazagoa da gure esperientzia besteei helaraztea, baina, duela gutxi arte, ez zen hain erraza, eta esperientzia honekin lotutako pertsona askoren memoria ahaztu egin da.

Bilatu al dute Bideari buruzko informazioa blog edo sare sozialetan?

Etapa honetan protagonista ez da historia izango, baizik eta Bidearen memoria, ikasleen gertuko pertsonen ahotsetik kontatua. Pertsona horien bizipenak ikasleek ikasitakoa aberastuko dute. Pertsona horiek garrantzitsuak dira ere.

Non aurki dezakegu memoria hori?

Esperientzia horietako asko gure herri edo hiriko biztanleen, senideen edo bizilagunen biografian aurki daitezke. Pertsona horiek, batez ere helduenek, Bideak herri edo hirian eragin duen eraldaketa ikusi dute. Haien ahozko testigantzek harreman zuzena dute ezagutu dugun kultur ondarearekin. Kontuan hartuko dugu hori.

**Gure II. proposamena: Ahozko kontaketa
Donejakue bidearen oinarritzko zati bat da...**

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Donejakue bidearen inguruko ahozko kontaketen, oinarritzako beste elementu bat kondairak dira. Dozenaka aurki ditzakegu; izan ere, herri edo hiri askok dute Bidearekin zuzenean lotutako legendaren bat. Kontaketa horiek memoriaren zati bat dira eta tokian tokiko historia ezagutzen laguntzen dute. Hain zuzen, kondaira horietako asko herri eta hirien nortasunean txertatuta daude eta kanpokoentzako identifikazio-ikur bihurtu dira. Une

egokia da hau legenda horiek gogoratu eta ezagutzeko. Azken finean, gure helburua da ikasleek Bidea nondik datorren ezagutzea eta Bidearekiko, hango ondarearekiko eta ingurunearekiko errespetua erakustea. Horrela, Bideari esanahi historikoa emateaz gain, kontserbazioan eta zabalkundean parte hartzeko beharra ulertuko dute. Azkenean, ondare guzti hau ahazten bada, zer galduko dugu guk? Geure memoria propioa.

Gure III. proposamena: Memoria galdu duten eta haien ondarea aintzat hartzen ez duten hainbat gizartek...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

II. proposamenean planteatzen dugun moduan, Bidea beste pertsonen kontakizunen eta oroitzapenen bidez ezagutzeak ikasleen eta haien herri zein hiriko pertsona helduenen arteko harremanak estutzeko etapari bidea ematen dio. Aprobetxa ezazue errekurso baliagarri hori. Alde batetik adinekoentzat, beste batzuek haien bizitzarekiko interesa adierazten dutela ikusteak poza ematen direlako. Eta, bestetik, ikasleentzat, hain mundutik irten eta inguruan dutena ikusten laguntzen dielako. Horren bidez lortuko dugu gazteek haien iragana eta oraina osatzen duten elementuak identifikatzea.

Kultur ondarea ez da soilik iragana, etorkizuna era bada. Horregatik da hain garrantzitsua.

Eta hau amaitzeko, kultur ondarea gure memoriaren jatorrian dagoenez gero, Bidearekin erlazionatutako beste pertsona batzuen bizipenak berreskuratu ditugun bezalaxe, guregandik eta gure herri edo hiritik gertu dagoen beste kultur ondare mota baten memoria berreskuratuko dugu.

Horretarako, goiko proposamena, Donejakue bideaz hitz egiteko ez ezik, gure herri edo hiriko kultur ondareak azken urteotan izan duen bilakaeraz hitz egiteko ere baliabidea dezakegu.

Ezagutu ditugun ondare-mota guztietatik, zein berraztertu nahiko zenukete?

Horiek horrela, azpimarra dezagun jasotako testigantzen garrantzia, zenbait ondare-elementuren gaineko galdera zehatzago batzuk ere eginda. Aukeratu taldearekin lotura estuagoa izan ditzaketen elementuak: pertsonaiak, tokiak, monumentuak, etxebizitzak, paisaiak, industriak, erlijio-ospakizunak, eguneroko bizitzaren alderdiak, denbora aurrera joan ahala gertatu diren bilakaera edo aldaketak, eta abar.

Nolakoak ziren lehen ospakizun garrantzitsuenak?

Zer egiten zuten ondo pasatzeko?

Nondik dator gure ikastetxearen izena? Ba al du loturarik herri edo hiriko pertsonaia batekin?

Beste izenik izan al du?

Nolakoak zen lehen ikastetxeko bizitza?

Gure ikastetxearen, kaleen eta plazen izenen zergatia ezagutzea baliagarria da eta, horrez gain, historiari zentzua ematen laguntzen digu.

Gogoan duzue “Ondarea eta nortasuna fitxako” IV. proposamenerako ikasleei zuen herri edo hiriko egungo argazkiak egiteko eskatzea proposatu genizuela? Aldera itzazue argazki zaharrek herri edo hiri nola aldatu den ikusteko. Erabili ikasleek etxean, Interneten edo udal-agiritegietan aurki ditzaketen toki berberen argazki zaharrak. Azkenik, erakutsi argazkiak elkarriketatuei eta ikusi zer-nolako aldaketak izan diren.

Gure Proposamena

Jarraian aurkezten ditugun proposamenak motibazio-jarduerak dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumeko gaitasunak eta edukiak osatzeko diseinatu dira, **“Zure Donejakue bidea, denon ondarea”** heziketa-programak ezartzen duen helburuaren baitan. Fitxa honetan ikasgai hauetarako proposamenak aurkituko dituzue:



PLASTIKAREN
HEZKUNTZA



GIZARTE
ZIENTZIAK



HISTORIA



MUSIKA



HIZKUNTZA

Gure I. proposamena: Musika

Musika bidelagun dugu bizitza osoan zehar... une askotan. Erromesek ere bazuten musika entzuteko aukera hori. Abestiek, irudiekin batera, funtzio didaktikoa zuten. Erromesak prestatzeko, jainkozaletasuna indartzeko erabiltzen ziren, eta ibilbidearen gaineko informazio baliagarria ematen zuten. Aldi berean, atsedenaldiak alaitzen zituzten.

Garai hartako trobalari eta juglareak Europan zehar ibiltzen ziren, gesta-abestien bidez, pertsonaien bizitzak kontatzen, Bideko hainbat zatitan aurki zitezkeen zailtasunak azaltzen eta herri zein hirietan ikasi edo entzundakoa zabaltzen. Hona hemen Donejakue bidea aipatzen duten bi adibide:

“Mio Ciden eresia”

“Ya se parte Don Rodrigo,
Que de Vivar se apellida
Para visitar Santiago
Donde va de romería...”

“Santa Mariaren kantigak” (*Non é gran cousa*)

“Semellança fillou de Santiago
e disse: “Macar m' éu de ti despago,
a salvaçon éu cha trago
do que fust' errar,
por que non cáias no lago
d' iférno, sen dultar”

Orobat, ikusi berri dugu, Kode Calixtinoan musika ere badagoela. Izan ere, Kodearen hiru zatitan partiturak eta musika-elementuak aurki daitezke:

- Lehen liburuan elizkizun eta mezetako musika sartzen da, bai eta gehigarri gregoriano bat ere. Piezetako bat polifonikoa da, gainerakoak monodikoak.
- I. eranskinak 21 pieza polifoniko barne hartzen ditu: 7 benedicamus, 4 erresponstu, 5 conductus, 2 kyrie, gradual 1, prosa 1 eta aleluia 1.
- II. eranskinean **“Ultreia kantua”** dago (*Dum pater familias*). Ultreia erromesen kantu zahar eta garrantzitsuenak da, Compostelarako peleginazio-musikaren testigantza unibertsalena delako eta done Jakue gurtzeko tradizioaren erreferentzia izan delako mendeetan zehar.

Esteka hauetan gaur egun erromesen ereserkitzat jotzen den abestiaren letra entzun eta ezagutuko duzue.

https://www.youtube.com/watch?v=_AEUabPDIno

https://www.youtube.com/watch?v=ps8TDCYY_Dc

(Donejakue bidearen adiskideen elkartetako ordezkariak interpretatuta)

Hortaz, musika bi modutara landu dezakegu gure heziketa-programan:

- musika mota zehatz gisa (polifoniak eta kantuak): ezaugarriak eta garai hartako erreperatorioa, Bidearekin eta Erdi Aroarekin duen lotura aztertzeke.
- edo pertsonen bizitzaren zati gisa: musikak nortasuna defini dezake eta kultur ondarearen pieza garrantzitsu bat da.

Agian, zure ikasleei ez zaie gehiegi interesatuko orain proposatzen dizuegun musika-mota, baina Donejakue bidea egiteko asmoa badute, haien musika proiektu eramango dute, seguru, Biderako *playlista*. Zein izango da musikaren eginkizuna? Nola aukeratuko dute musika?

Proposatu musika-zerrenda denon artean osatzea, musika beste alderdi batzuekin (hobetzeko grina, poza, etab.) lotzeko. Gaur egungo zenbait artistek, Bidea egin ondoren, abestiak sortu dituzte bizipenetan oinarrituta, Erdi Aroko juglareek bezalaxe. **Entzun al dute horrelako abestirik?**

Gure II. proposamena: Elkarriketa

Ahozko kontaketa Donejakue bidearen oinarritzko zati bat da... Bidean, ondare-elementu ukigai edo naturalak (orain arte ikusi dugun bezala) ez ezik, ondare immaterialaren barruan, ahozko kontaketa ere aurki daitezke. Kontaketok Santiagorako erromesak entretenitzeko balio dute; gainera, Bidea egiten duten pertsonen eta zeharkatzen diren herrien arteko kultur trukea sustatzen dute.

Beraz, ondare-elementu hau Bidearekin lotutako besteen bizipen eta esperientzietan sakontzeko erabil dezakegu, Bidea ulertzen lagunduko baitigu. Irakaslearen xedea izango da ikasleek bertako biztanleen memoria ezagutzea eta, prozesu horren bidez, leku horretako Bidearen memoria berregitea. Testigantza horiek oso aberasgarriak izango dira antzinako pasadizoak, ohiturak eta turismo-gidetan jaso ohi ez diren beste informazio batzuk berreskuratzeko, bai eta Donejakue bideak azken urteotan izan duen eboluzioa aintzat hartzeko ere.

Banakako edo taldeko elkarriketak egitea proposatzen dizuegu, denek izan dezaten parte hartzeko aukera. Hasteko, zehaztu ditzagun eman beharreko urratsak:

- Zer ikasi nahi dugu Donejakue bidearekin lotutako ahozko kontakizunetik? Esaterako: nola eragin du Bideak herri edo hirian; nola gogoratzen du Bidea pertsona horrek; zer esan nahi izan du harentzat; nola bizi izan du; nolakoak ziren antzinako erromesak; zer-nolako harremana izan du herri edo hiritik pasatzen ziren erromesekin; Bidea egin badu, nolakoa izan da haren esperientzia, eta abar.

Gogoan izan ez dela nahitaezkoa Donejakue bidea zuen herri edo hiritik igarotzea heziketa-programan parte hartzeko edo haren memoria ezagutzeko. Badakigu, haien kokapen geografikoa dela-eta, lantzen ditugun Donejakue Kontseiluaren eskumeneko ibilbideak irisgarrienak direla ikastetxe batzuentzat. Alabaina, ahozko kontakizunak ibilbideak egin dituzten toki askotariko pertsonenak izan daitezke. "Zure Donejakue bidea" bizipen-metafora bat da eta "denon ondare" bihurtzen da.

- Galderak egiten hasi aurretik, ikasleek beste iturri batzuk erabili beharko dituzte informazioa biltzeko.
- Prestatu gidatuko zaituen galdeketa bat, baina saiatu elkarrizketa informalak egiten eta giro lasaia sortzen.
- Aurretik parte-hartzaileak tentuz hautatzea garrantzitsua izango da baita ere, ezarri ditugun helburuen arabera. Aukeratu adin eta gizarte-talde ezberdinetako pertsonak.
- Elkarrizketa egitean, kontuan izan elkarrizketatuen beharrak: ikasgelara etorriko dira edo beste toki batera joango gara, etab.
- Grabatu elkarrizketak, prozesuan funtsezkoak baitira. Ahaztu ez daitezen, elkarrizketak balio historiko handiko erregistro gisa grabatzea proposatzen dizuegu: memoriaren kontakizunek, pasadizoez eta oroitzapenek Bidearen beste historia ulertzen lagunduko digute, datu ezagunen itzalpean gelditu den hori guztia.

Bururatu zaizue sormen artistikoko lana dokumental gisa garatzea?

- Informazioa lortutakoan, interesgarria izango da datu batzuk iturri historikoekin alderatzea egiazkoak ote diren ziurtatzeko. Sarri askotan, ahozko kontaketak zalantzan jartzen dira subjektiboak direlako.
- Amaitzeko, ateratako ondorioek helburuak lortzeko balio ote diguten ikusiko dugu. Baina, esan bezala, emaitza prozesua bera bezain garrantzitsua da.

Gure III. proposamena: Collage

Memoria galdu duten eta haien ondarea aintzat hartzen ez duten hainbat gizartek... besteen ondarea inportatzen dute. Logikoa al da besteen ondarea arrazoi estetiko edo turistikoengatik geureganatzea?

Galdetu ikasleei horren adibideren bat, modaren bat, ezagutzen ote duten.

Ondare-monumentu bat aukeratu eta berrinterpretatu dezagun, hau da, argazkiak erabilia eta muntaia bat sortuta, ingurune guztiz desberdin batean txertatu. Hasiera batean, geureganatu dezakegu, testuingurua kendu diezaiokegu, monumentua bere jatorrizko ingurunetik bananduta eta beste elementu batzuekin nahastuta (zer eduki nahiko genuke gertu?); birsortu dezakegu, baina gauza bera litzateke?

Kultur ondarearen ezaugarrietako bat da kopiatutako ondareak bere jatorrizko zentzua galtzen duela, ondarea testuinguru, denbora edo gizarte-talde jakin bati datxekielako.

Baina, kontuz, komunitate jakin bateko pertsonen haien kultur adierazpen propioak beste leku batera eramane eta eremu berrietan garatu ondoren, adierazpen horiek azkenean errota daitezke.

Galdetu ikasleei horrelako adibideren bat ezagutzen ote duten.